

— Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren kopia.

— Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

— Gizartekintzak edo bere ordeztuak diharduen erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.

b) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta nekazaritzako makinak badira:

— Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia.

— Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

— Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartillaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

Hobariak:

1. Izaera orokorrean, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzera eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko aintzintasuna dutenek % 100eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

Hobaria aplikatu ahal izateko, zergadunak eskatu beharko du eta indarrean sartuko da hurrengo ekitalditik aurrera.

3. Motore hibridoa (motor elektrikoa eta beste bat gasolinazkoa, gasoilezkoa edo gasarekin) edo elektrikoa duten ibilgailuek % 75eko hobaria izango dute zerga kuotan.

4. Aurreko 2 eta 3 zenbakietan aipatutako hobariak zerga kuotari aplikatuko zaizkio.

5. Urte bakoitzean hobaria pertsona bakoitzeko ibilgailu batek soilik izango du, eta ibilgailu hori urtarilaren 1ean alta egoeran zegoena izango da.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Obra bakoitzeko gutxiengo tarifa: 40 €.

Tipoa: % 5.

Hobariak:

— Baserrietan egiten diren obrak, bere ustiapena hobetzeko badira, % 90ko hobaria.

— % 95eko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, eskaera egin ondoren.

— Monumentu historiko-artistikoetan burutzen diren eraikin, obra edo instalazioek % 90eko hobaria izango dute zergaren kuotan, ondasuna kalifikatuta badago. Egitemu Orokorreko katalogoan dauden ondasunen inguruan, hobari hauek izango dituzte kategoria hauetakoek:

Kategoria	Hobaria
BA-1-A	% 90
BA-1-B	% 90
BA-2	% 90
BA-3	% 70
BA-4	% 50
BA-5	% 50
BA-6	% 50

BA-1-A: Monumentu Multzoa / Conjuntos Monumentales.
BA-1-B: Monumentoak / Monumentos.
BA-2: Ondasun Higiezinak, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian Ondasun Kultural gisa inskribatu edo sartu ondoren / Bienes Inmuebles declarados Bienes Culturales mediante su inscripción o inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.
BA-3: Ondasun Higiezinak, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian Ondasun Kultural gisa inskribatzeko edo sartzeko espedientea hasita dutenak / Bienes Inmuebles que poseen expediente incoado para su declaración como Bienes Culturales mediante su inscripción o inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.
BA-4: Ondasun Higiezinak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ondasun Kultural gisa izendatzeko proposatuak direnak, inkripzio edo kalifikazio bidez, edo Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartzeko / Bienes Inmuebles propuestos para ser declarados Bienes Culturales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, bien mediante su calificación, bien mediante su inscripción o inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.
BA-5: Udal mailako babesa duten Ondasun Higiezinak / Bienes Inmuebles de protección a nivel municipal.
BA-6: Ondasun Higiezinetan dauden eta udal mailako babesa duten elementu bereziak dira / Elementos singulares de protección a nivel municipal en bienes inmuebles.

— % 95eko hobaria baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan energia berriztagarrien aprobetxamendua ezartzen badute. Ondare Higiezinaren Zergan hobariak lortzeko eskatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte hobari hau aplikatu ahal izateko.

— % 50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berriak egiteko obra direnean.

— % 90eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasuna eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

— % 95eko hobaria Debagoieneko Mankomunitateak egiten dituen obretan.

— % 90eko hobaria erakinetako fatxada eta teilatuetan egindako lanetan.

— % 90eko hobaria jabekideen komunitateko lanak egiten direnean.

— % 90eko hobaria eraikuntzen ikuskaritza teknikoak ezarritakoak betetzeko egiten diren obretan.

— % 90eko hobaria Bizigunek eskatutako baldintzetara egokitzeko lanetan, ondoren etxebizitza hori Bizigunen inskribatzeko baldintzarekin.

TASAK

Zerbitzu publikoak eskeini eta jarduerak burutzeagatiko tasa.

a) Administrazioak ematen dituen dokumentuen gaineko tasa.

	€
Ziurtapenak	3,40
Fax-a bidaltzea, orri bakoitzeko	2,00
Fotokopiak, orri bakoitzeko	0,15
Fotokopia koloretan, orri bakoitzeko	1,00
Fotokopiak ordaintzetik salbuetsita daude Elgetako Elkarteak.	
Lizentzia eskaerak	5,96
Txakur arriskutsuen lizentzia tramitatzeagatik, alta emateagatik, txakur bakoitzeko	31,21
Txakur arriskutsuen txartela bikoiztu edo galdutakoa berriz egiteagatik	10,00
Ahalordeen askiespena	16,26
Hirigintza txostenak ematea	30,14
Finkak banatzeko baimenak ematea	39,54
Argazki artxiboko kopiak.	
Paperean, argazkiko	1,74
CDan, bakoitzeko	3,43
Euskarri fisiko gabe argazki kopia digitala jasotzea, bakoitza	1,27

b) Obretako lizentzia eta baimenak ematearen gaineko zerga.

	€
Obra txikiak:	
601,01 €ra iristen ez diren obrak	39,44
601,01 €tik gorako obrak	52,00
6.010,12 €tik gorakoak	95,18
Obra handiak:	
30.050,61 €ra iristen ez diren obrak	260,73